

Batean kale, bestean bale

Infernua

Infernura joateko bekatuak larria izan behar du eta zorionez astakerien garaia badirudi joan zela baina erne egon behar dugu. Ez gaitzen bertan gozo gelditu! Dena dela aurreko argumentazioarekin ez gaude ehuneko ehunean ados. Purgatorioak irteera bi izan beharko lituzke: bata zerura (betikoa) eta bestea infernura. Infernuko suak hobetzen ei du gizakia.

Kurikak joan, Kurikak etorri, zazpi urte pasatu dira eta ez da ezer aldatu. Aurreko Kuriketan esandakoak kopiatu (copy paste) eta amaituta artikulua! 2025. urteurrena helduko da eta estudiante tunanteen moduan azken orduan hasiko gara ikasten. Ordura arte trankil, ez dago presarik eta!

Purgatorioa

Purgatorioan bizi gara lekeitiarrok, gustura gainera. Teologia katolikoaren arabera, Wikipediak hala dio behintzat, bekatu larririk ez (Jainkoaren kontrako zuzeneko ekintzarik) baina guztiz garbitu gabeko bekatuak dituztenak purgatorioan edo garbitokian penitentzia egin behar dute, zerura joan aurretik. Gainera ez dela infernuaren atal bat argitzen du, eta biziek garbitokiko arimen alde egiten dituzten otoitz eta errukizko ekintzek garbitokian egin beharreko denbora labur dezaketela gehitzen du. Has gaitzen bada, denok errezoan eta karitatezko obrak egiten! Teologiarekin jarraituz gogora ezazu irakurle maitea hiru -egia esan, norberak nahi beste- bekatu mota daudela: berbazkoak, egitezkoak eta **ez-egitezkoak**. Eta pentsamenduzkoak... Ez-egitezkoak, preseski (ona) ez egitearren bihurtzen dira bekatu. Eginak egin, bekatarri bihurtuko bagara ez ote da hobeto egitezko bekataria izatea? Egin, egin eta egin, lan lan eta lan, hori da formula!



Zerua



Txaloak azkenerako utzi ditugu. Gauza asko egiten dira ondo: Kurik hau –astoa aurretik-, Jose Mari Arriolaren liburuak, Garraitz 25 taldearen ekin-tzak, Miren Agur Meaberen Espainiako poesia sari nazionala (Miren Agur historiara pasatu da) etab. Mendieta ontziola, badirudi aurrera doala, asti-ro-astiro. Ez arre ez iso, Abaroa jauregia dago. Dirutza behar da, badakigu. Entzun zen historiaurreko museoren bat zabaldu nahi zela hemen Lekeitio aspaldian agertu den ondare ikaragarria erakusteko baina politikariek erabiltzen duten zunda-globoa dirudi. Guggenheim berria zabaltzeko asmoaz dabilta, datozela Lekeitiora Maderas de Lekeitio-ko orubean badaukagu lekua eta.



"De aetatibus mundi imagines"
Francisco de Holanda, 1545. B.D.H.